

DIENEBA,

Senegaldik Gasteizera





DIENEBA, Senegaldik Gasteizera

EGUN BATEAN DIENEBAK, hamar urte baino ez zituela, aitaren eta amaren arteko elkarriketa entzun zuen:

- Ez dut lanik eta ez daukat nola erosi familiak behar dituen jatekoak eta jantziak. Espainiara joango naiz lanera!

DIENEBAK atean zegoen zulo txiki batetik begiratu zuen eta aitaren eta amaren aurpegi kezkatu eta tristeak ikusi zituen.


Berehala mapa bat hartu eta aitak aipatutako herrialdea bilatu zuen bertan. **Beste kontinente batera joango zen!**

Entziklopedia batean irakurri zuenez, Espainia oso bestelakoa zen haiek bizi ziren kontinentearen aldean, Afrikaren aldean, alegia.

Agur esateko eguna heldu zen eta ohi bezala...
tristeia izan zen, batez ere **DIENEBAK** ez zekie-
lako zenbat denbora igaroko zen aita berriro
ikusi arte.

Baina handik gutxira, **a zer poza!** Familiak aita-
ren berri izan zuen. Euskadin kokatuta zegoen
Vitoria – Gasteiz izeneko hiri eder eta lasaian
bizi zela jakin zuten.

Aitak idatzitako gutuna irakurri ahala, **DIENEBA**
hitz horiek alderatzen hasi zen bera bizi zen
lekuarekin eta bertan zituen gauzekin.



Dieneba eta bere familia **TAMBACOUNDAN** bizi ziren, **SENEGAL** hegoaldean. Oso hiri handia eta zaratatsua da **TAMBACOUNDA**, bertako kaleak lurrezkoak dira eta azoka ugariz inguratuta dago, behar duten guzti-guztia eros dezaten.

Bi hizkuntzatan hitz egiten dute, **WOLOFEZ** eta frantsesez. Klean Dienebarekin topo eginez gero, honela agurtuko gaitu:


-**SALAMALEKUM, NANGADEF?** (“Kaixo, zer moduz?” **WOLOFEZ**). **Wolofa bai polita! Guztiz ezberdina da, ezta?**

Eta honela esango digu agur:

-**BA BENEEN YOON** (“Agur” **WOLOFEZ**).



SENEGAL



SALAMALEKUM,
NANGADEF?



DIENEBAK gauero aita berriro ikustearekin eta besarkada handi-handi bat ematearekin egiten zuen amets. Bederatzi urte igaro ziren.

Egun batean, postariak oso eskutitz berezia ekarri zien. Amak eskutitza ireki bitartean, guztiak haren inguruan eseri ziren. Orduan irakurtzen hasi zen eta... **ezetz asmatu zer esaten zuen?** Aitak Espainiara bizitzera joateko eskatzen zien. Familia osoa saltoka hasi zen pozaren pozaz.

Berehala gauza guztiak prestatu, senideei agur esan eta Vitoria – Gasteizera joan ziren.

DIENEBAK begiak zabal zabalik begiratzen zion **hiri polit hari!** Txikitxo zen baina oso garbi zegoen.



Baina **DIENEBAK** arazo handia zuen! Ezin zuen inorekin hitz egin eta, hori dela eta, ez zuen lagunik. Egunak joan eta egunak etorri, hasieran haaaain polita iruditu zitzaion hiria, ez zitzaion hainbesterako iruditzen eta Dienebari bere herrialdera itzultzeko gogo piztu zitzaion.

Ez zion irtenbiderik ikusten. Baina, orduan, aitak zerbait esan zion: Gasteizen bazela gaztelaniaz hitz egiten eta idazten irakatsiko zioten toki bat... **Ikastetxera itzuli beharko al zuen?**



Berez, leku hura ez zen ikastetxe bat, **ADR**en **Lan-Gizarteratze Zentroa** baizik. Leku berezi hartan **DIENEBAREN** egoera berean zeuden hainbat herrialdetako neska-mutilak ezagutu zituen neskak. Denak ere haien herrialdeetatik eta lagunengandik urrun zeuden, ez zuten inor ere ezagutzen eta ezin ziren komunikatu beste hizkuntza batean hitz egiten baitzuten.



Irakasleak izugarrizko pazientzia izan zuen haiekin, harik eta gaztelaniaz ongi hitz egiten eta idazten ikasi zuten arte!

Haiek ere pazientzia handia izan zuten irakaslearekin... Izan ere, azterketa asko jarri zizkien, benetan ikasten ari zirela ziur egon nahi zuen eta.



Dienebak lagun asko egin zituen klasean; horren erakusgarri, haren urtebetetze egunean ekarri zioten tarta polita, kandelak eta guzti. **DIENEBAK** kandelak itzali behar izan zituen, ikaskide guztiek adi-adi begiratzen ziotela.

Zentroko neskek, gaztelaniazko eskolen bitartez, bidaiatuz, barre eginez, margotuz, jantziak prestatuz, jolastuz, dantza eginez... zera irakatsi zioten:

**Guztiok berdinak
garela eta eskubide
berberak ditugula.**

DIENEBAK ez du **SENEGAL** hegoaldeko bere herri maitea ahaztu, baina gaur egun pixka bat euskaldunago sentitzen da.



Zer uste zenuten, bada? Istorio hau ipuin bat
besterik ez zela? Ez, bada! Dieneba hezur-ha-
ragizkoa da. Hemen duzue. Zuei kaixo esatera
etorri da, honako hau beti gogora dezazuen:

BERDIN DU ZER KOLORETAKOAK GAREN ETA NON JAIOAK GAREN, GUZTIOK BERDINAK BAIKARA.

DIENEBA, SENEGALDIK GASTEIZERA

ADRA Fundazioaren “Etorkinak
gizarteratzeko harrera programa”
delakoaren baitan egindako jarduera da

Testua:

Sandra Llamas / Elena Leiss

Diseinua eta irudiak:

M^a Reyes Guijarro

Itzulpena: **Yaiza Cuesta**

Inprimaketa: **San Martín Impresión Digital**

Data: **Madrilen, 2015eko abenduan**

Hauen diru-laguntzaz:

Lan eta Gizarte Segurantzza Ministerioa

Europar Batasuneko Asilo, Migrazio eta Gizarteratzeko Funtza

ADRA Fundazioa



www.adra-es.org



Por una Europa plural

